142. zenbakia - 2014ko urria

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

] KOSTALDE BALEADA EKIMENA
LOKALA GURASO ETA HAURREN ESKURA]

EULALI JANARI DENDA

Unai Gereka, urteetako lanaren emaitza

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz
Venta de equipos informáticos
Mantenimiento
Academia de informática
Diseño de páginas web
Urdaneta, 2 bajo · 20800 Zarautz

OSTOLAZA EDARITEGIA
kaxuelitak eta plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

OSTOLAZA TALLERRA
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 203
ostolazatallerra@gmail.com

SALANORT
SALA NORT
CONSERVAS ARTESANAS de GETARIA
Kale nagusia 22 Getaria 943 140 624
Arma plaza Hondarribia 943 646 187
ON LINE DENDA
www.salanort.com
Hegaluze mami 220 gr-ko 6 pote erosteagatik %20 deskontua egingo da

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

BABEXA
Getariako dendari elkartea

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak
Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86
aranola

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

HARRALDE
GETARIA
NAGUSIA,17
☎ 14 07 04

Aspaldian kontuak
galduak neuzkan nik (bis)
ez nekin irail ostez
bero zetorrenik! (bis)

Doinua: Orbelak airez.

artzape

142. zenbakia

2014ko urria

3 / Bertsotan
4 / Publizitatea - Denborapasak
5 / Txapakalezka - Artzapetik begira
6 -7 / Zer berri - Bi hitzetan
8-11 / Elkarrizketa - Unai Gereka
12 / Argazki txokoa -Auzolana
13 / Komikia
14-15 / Erreportajea: Diamantezko familia
16 / Txutxupeka - Iraileko denborapasen soluzioak
17 / Gaglo gaztelekua
18 / Historiaren katebegiak
19 / Herriko toponimia - Txikiegia agian
20 / Iritzia
21 / Elan- Euskadi
22 / Agenda
23 / Herriko gutixiak - Telefono interesgarriak - Farmaziko guardiak - Zorion agurrak

8-11

12 **16**

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

[argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea [erredakzioa] Izaskun Urbieta eta Monika Uzkiza
[lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Izaskun Larrañaga, Nerea Kamio, Josune Urresti, Jon Ander de la Hoz, Alain Inza, Unai Mateos, Haritz Esteban, Amaia Irazabal, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika, Gaglo Gaztelekua, Iturzaeta Herri Eskola, Elan-Euskadi GKE, Markos Aizpurua, Andres Alberdi eta Erein kultur zerbitzuak [hilabete honetako kolaboratzaileak] Kepa Iribar, Edurne Irigoen.
[argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1170 ale
[lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak eta Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

publizitatea

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo *artzape@topagunea.com* helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

2015EKO ARTZAPE EUSKARA ELKARTEAREN EGUTEGIA LASTER SALGAI

Artzape Euskara Elkarteak 2015eko egutegiak aterako ditu laster. Herriko hainbat talderekin osatutako egutegi ederra izango da. Herritarrek egina, herriarentzat eta euskararen alde.

Elkarteak aurrera ateratzeko diru laguntza modura egin du egutegia. Hemendik aurrerako ekintzak antolatzeko gai izateko. Egutegiak 8 euro balio ditu eta dena ondo badoa, Eñaut Elorrietaren kontzertuko egunean, azaroaren 14ean, salgai izango dira.

Aurrerago erosteko aukera ere egongo da, baina salmenta tokiak oraindik zehazteke daude. Artzape aldizkariaren Facebook orrialdean jakinaraziko dute informazio osoa.

Azala herriko txoko batekoa da, zein izango ote da? Eta zein herritar aterako ote dira? Laster jakingo duzue.

denborapasak

-- ASMAKIZUNAK

Amak bi ditu aitak ere bai, semeak bat ere ez eta alabak hiru. Zer da?

Oso ongi zaintzen dut etxea, ez dut zaunka egiten baina hortzak ditut. Zer naiz?

-- SUDOKUA

			3		7			
	8	3		5				
9						3	2	4
		7	8	6	2		3	
	4		9					
3	5	2						6
				9	3	8	6	
5			7	8			4	
	6			4				3

Soluzioak azaroko alean jarriko ditugu.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

ITXASPE TABERNA

] txapakalezka

Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika

+ / = / -

Oraingoan, aspaldiko partez, + = - sekzio arruntarekin gatoz. Izan ere, azkenaldian - - - atala egin izan dugu (gure haserrea adierazteko), baita + + + atala (bizitza alaitzen diguten kontuekin) edo = = = (urteak igaro ahala, aldatzen ez diren klasikoekin) ere.

Baina ba ote denetarik dagoela diona baino klasiko haundiagorik? Batzuetan ingurura begiratu eta gauzak asko eta azkar aldatzen ari direla iruditu arren, bestetan denak berdin jarraitzen duela ematen du. Eta ez gara soilik Elkanoren lehorreratzeko pelukez, Zarauzko malekoiko udako "txurferrez" edota ezkontzetako bazkalostetako musikaz ari…

Horrenbestez, hemen dituzue azkenaldian atentzioa deitu diguten kontuak, bizitza bera bezala, era guztietakoak:

+ Herriko kirolariak osasunez gainezka!

Gauza jakina da, baina azkenaldian baieztatu besterik egin ez dena: Getariako kirola guztiz osasuntsu eta sendo dago, eta hau berririk pozgarrienetakoa da. Adibide ugari aipa genitzake: lehen aldiz Itxas-Krosa antolatu zen Getaria eta Zarautzen artean eta oso giro ona egon zen (gainera, nesketan Uxoa, gure fitxaje izarra, izan zen garaile!), egun bertan herriko kirol talde denen argazkia, triatloi taldea dugu herrian, arraunlariak igoera play-off-ean, Gereka piraguako mundialean, Ketako mutilak lider sailkapenean… Hoi dek eta sasoia!

= Herria txukun mantentzea denon ardura da!

Nahiko herri txukuna da gurea, baina baditugu hobetzeko kontuak ere. Udalak adierazguneak (kartelak jartzeko guneak) jarri zituen aurreko urtean. Oraindik ere hainbat kartel jartzen dira, ordea, adierazguneetatik kanpo. Agian Udalak panel gehiago jarri beharko ditu, adierazpen askatasuna eskubide oso garrantzitsua delako, baina horrek ez du justifikatzen edozein lekutan kartelak jartzea. Ildo honetan, urrian zehar GetariAuzolanean egitasmoa jarri da martxan, eta bertan, hainbat herritarrek Katxapo txukundu eta margotu dute, zikinduta eta pintadaz beteta baitzegoen… Ea gisa honetako urratsak ematen jarraitzen dugun, eta herritar gehiagok hartzen duten parte, denon ardura baita txukuntasunarena.

- X espedientea: terrazen inbasioa udan!

Inbasio asko ikusi izan ditugu filmetan zein berrietan: estralurtarrak, txoriak, bikingoak, Estatu Batuetako armada ase ezina… Baina Getarian aurtengo udakoa bezalakorik ez… Terrazen, mahaien eta aulkien (izozki erraldoiak ez aipatzeagatik) inbasioaz ari gara! Kale Nagusitik edota Elkano kaletik oinez igarotzea odisea bat bihurtu da, eta herritarren kexak eragin ditu honek, arrazoi guztiz! Batzuk nahi dutena egiteak, besteei eragiten baitie. Norbere eskubideak besterenak hasten diren lekuan amaitzen dira, eta ostalaritzakoek herritarrengan ere pentsatu beharko lukete… Ez zaigu iruditzen asko eskatzea denik…

Berritzea ezinbestekoa dela esan ohi denez, gu ere berrikuntza, nobedade batekin gatozkizue oraingoan… Txapakalezkako helbide elektronikoa prest dugu jada: txapakalezka@gmail.com . Honela, Txapakalezkako irakurleokin interakzioa izan nahi dugu. Beraz, gure atalari buruzko iritziak, proposamenak, kritikak (eraikitzaileak, asko eskatzea ez bada)… egin nahi izanez gero, baduzue aukera hemendik aurrera. Zuen mezuen zain geratzen gara!

artzapetik begira

Kepa Iribar

Gezurrak konta ditzagun, tralara...

Afrika. Ez al dago ba garbi? Euren jaioterria eta familia utzi eta milaka kilometrotara etortzen diren horiek helburu bakarra dute: RGI delakoa kobratuz lanik egin gabe bizitzea. Hori esaten duen politakariak botu batzuk irabazi nahi dituela pentsatzea ere! Eta batzutan okerragoa da: lapurretara datoz zuzenean, edo guri lana kentzera.

Guk, Lehen Munduko gizarteok, zer erantzunkizun dugu ba? XIX. mendean Afrika kolonizatu genuen, ez gure industriarako lehengaiak behar genituelako, euren hobe beharrez, euren gizarteak "aurreratuago" izan zitezen. Eta Bigarren Mundu Gerraren ondoren deskolonizazioa etorri zenean txukun eta ondo egin genuen. Zer pentsatzen duzue ba, mahai gainean mapa bat jarri eta erregelaz marra zuzen batzuk botata egin genituela mugak, ondoren sarraskiak ekarriko zituzten banaketak edo elkartzeak sortuz? Eta gero zer, ekonomikoki kolonizatu al genituen ustiapen basatien bidez, euren eskubideak zapalduz eta euren politikari ustelei poltsikoak betez? Ba ez.

Orain Ebola agertu zaie. Ez al gara ari egiten ahal dugun guztia? Gure gobernuak edo gu gizarte moduan ez al gaude kezkatuta geure herrian gertatuko balitz bezalaxe? Egia esan, berdin zaigu Guinea Berrian eta Sierra Leonan gertatzea edo Londresen, Berlinen, edo Bilbon izatea. Pandemia bihurtzean eta guregana iristean gehiago kezkatuko garela uste duzu? Gezurra. Eta beste hau ere handia da: farmazia multinazionalak ez omen dute egiten ahal duten guztia gaitza Afrikan agertzen bada. Mesedez, hori pentsatzea ere. Haiek ahal badute lagundu egiten dute, berdin New Yorken zein Abuyan.

Ez ezazue sinistu esaten duten edozer eh! Gu Champions-en bizi bagara eta Afrikan hirugarren mailan edo plaierotan, ez da hori aldatu dadin erakusten dugu ahalegin faltagatik. Ke ba.

Kostalde Baleada arrakastatsua

Zumaian hasi eta Zarautzen amaitzen zen (Oriotik ere pasatuz) ekitaldi jendetsua izan zen urriaren 12an Urola Kostako herrietan. Itsas ondarea ezagutzera emateko helburuarekin atera ziren ia 500 pertsona eta ekitaldi arrakastatsua izan zen. Gehienak iparraldetik etorritakoak izan ziren eta herriko frontoian harrera berezia egin zitzaien. Arraun elkarteko lagunak eta Udaleko langileak prestatuta, janari eta edari ugari izan zuten indarrak hartu eta Zarautz aldera joateko.

Zerbait gertatzen ari da liburutegian

Udalak liburutegiari bultzada emateko pertsona bat kontratatu du eta bertako espazioaren berrantolatu egiten ari da: zerbitzu berriak martxan jartzen. Horien artean, liburutegien arteko mailegua. Guzti horiek liburutegian bertan eta Wordpress-en egindako blog batean, Facebook-en eta Twitter-en zabaltzen ari dira.

Informazio gehiago hemen:
- Liburutegiko e-posta: libgetaria@gmail.com
- Liburutegiko Facebook-a: Getariako Udal Liburutegia
- Liburutegiko Twitter-a: Getariako Liburutegia

XI. Getariako Surf eta Bodyboard Txapelketa inoiz baino herrikoiagoa

Gaztetape Surf Elkarteak antolatuta, XI. Getariako Surf eta Bodyboard Txapelketa herrikoia ospatu zen urriaren 11ean. Eguraldi bikaina izan zuten, baina ez ziren olatu handiegirik izan. Hala ere, txapelketa egin zen eta hauek izan ziren emaitzak:

Open mailan: 1. Manex Bikuña, 2. Iosu Iribar, 3. Andoni Ibarbia eta 4. Imanol Egibar. Bodyboard mailan: 1. Jon Azkue, 2. Mikel Irureta, 3. Jon Fermin eta 4. Igotz Irigoien. Longboard mailan: 1. Iñaki Aizpurua, 2. Ernai Esteban eta 3. Alex Gontan. Azkenik Master mailan: 1. Ibon Udabe, 2. Iñaki Bikuña, 3. Zurhitz Lasa, 4. Xabier Urdangarin eta 5. Iñigo Larrazabal.

Turismoak nabarmen egin du gora herrian

Udaran zehar egun eguzkitsu asko ez ikusi arren, turismoak gorakada nabarmena egin du Getarian. Iazko datuekin alderatuta %30,8ko hazkundea izan du turisten kopuruak. Guztira, 26.431 bisitari izan dira herrian. Hilabeteka banatuta horrela izan da egoera: ekainean 4.440, uztailean 6.994, abuztuan 9.265 eta irailean 5.732. Bulegora hurbildu direnetatik 1.624 getariarrak izan dira, 2.717 pertsona EAEkoak, 15.841 estatukoak eta 6.249 atzerritarrak.

Estatutik guztira 15.841 pertsona etorri dira eta erkidegoei dagokienez, Katalunia eta Madril azpimarratu behar dira, bolumen osoaren %24a eta %20a osatzen baitute hurrenez-hurren. Gaztela- Leon, Aragoi eta Valentziaren gorakada ere nabaria izan da.

Atzerritarrei dagokienez, guztira 6.249 izan dira etorri diren bisitariak eta Frantzia izan da igorle nagusiena 2.672 bisitarirekin. Aipatzekoa baita ere, Australiatik izan diren 248 turistak, joan den urtean baino %69 gehiago.

Kuriositate bezela, "Ocho apellidos vascos" filmak eragin duen inpaktua aipatzekoa da, izan ere, pelikulari buruzko kontsultak Aste Santutik orain arte 454 erregistratu dira Turismo bulegoan.

Gure Txeruko lokala goizetan irekita dago guraso eta haurrentzako

Zenbait gurasoren eskariari kasu eginez , Getariako Udalak Gure Txeruko lokala goizetan erabiltzeko aukera zabaldu du, haurrek eta gurasoek elkarrekin egoteko leku bat izan dezaten. Lokala 09:00etatik 13:00etara izango da zabalik eta erabiltzaileek udaletxean eskatu beharko dute giltza egunero. Erabiltzaileek arau batzuk errespetatu beharko dituzte. Informazio gehiago jakiteko udaletxera jo.

Ur zikinak bereiztea eta autobus geltokia konpontzea dira obren helburua

Bi zati garrantzitsu izango ditu obra handi honek eta hauen ejekuzioa bi hilabetez luzatzea espero du Udalak. Alde batetik ur zikinak bereiztea eta bestetik, Zumaiara doan autobus geltokia hobetzea dira obren helburuak.

Lanak hiru fasetan osatuko dira. Lehen eta bigarren faseek ez dute zirkulazioan aldaketarik eragiten. Hirugarren fasean autobus geltokia konpontzeko lanak egingo dira eta orduan itxiko da N-634 errepideko errail bat. Aldaketen berri laster jakingo da.

Europako Batzordearen Kontseiluak espezie exotiko inbaditzaileei buruzko neurriak hartu ditu.

Espezie exotiko inbaditzaileak beren banaketa naturaletik kanpo eta giza jardun naturalaren bitartez mugitzen diren espezieak dira. Ondoren, bizirik irauten dute, ugaltzen dira eta hedatu egiten dira, eta horren bidez eragina izaten dute biodibertsitatean edo kokagune berriarekin erlazio negatiboa duten ekosistemen zerbitzuetan. Orobat, aurkako eragina izan dezakete giza osasunean edo ekonomian.

Egindako estimazioen arabera, europar eremuan dauden 12.000 espezie exotikoetatik, % 10 eta % 15 bitartean ugaldu eta hedatu dira eta inpaktuak izan dituzte ingurumenean, ekonomian eta gizartean. Kalkulatzen da EBri gutxienez 12 mila milioi euroko kostua sortuko diotela urtean.

Europako Batzordearen Kontseiluak espezie exotiko inbaditzaileen sarrera eta hedakuntzaren prebentzio eta kudeaketarako araudi horrekin, Batzordeak zerrenda ireki batean bilduko ditu Europar Batasunean kezka sortzen dituzten espezie exotiko inbaditzaileak, eta zerrenda hori aldizka eguneratu eta berraztertuko da, gutxienez sei urtetik behin. Zerrenda horretako espezieak ezin ekar daitezke nahita EBko lurraldera, eta ezin izango dira merkatuan jarri, ezta landatu edo ingurumenera askatu ere.

Gainera, araudiak ikuskapen sistema bat ezarri du espezie hauek detektatzeko eta bizkor ezabatzeko. Aparte, arauak baimen-sistema bat ezarri du jarduera jakin batzuk baimentzeko, espezie exotiko inbaditzaileetan oinarrituta.

Batzordeak araudi honen aplikazioa baloratuko du 2021eko ekainaren 1ean.

Informazioa gehiago:
Tel. 943 896024
www.ihobe.net
maizpuru@getaria.org

16 urte ditu oraindik Unai Gerekak eta dagoeneko Europako eta Munduko Maratoi Txapelketetan parte hartu du Imanol Barruetabeña zumaiarrarekin osatzen duen K2an. "Lehen Hezkuntzako 5.mailan Iturzaeta eskolakoekin kurtso bat egin nuen Getariako hondartzan. Gustatu, eta udaran Zumaiako Itxas Gain taldeak antolatzen duen kurtsoa egin nuen. Hori bukatuta, ea urtean zehar jarraitzeko aukera zegoen galdetu nien eta horrela hasi nintzen". Urte hartan, Gipuzkoako txapeldun atera zen getariarra. Proiekzio handiko mutila, urte guzti hauetan gogor jardun du lanean bukatu berri duen denboraldia osatzeko: Espainiako txapeldun, Europako hirugarren postua eta Mundialeko 10. postua. "Gurasoei ere asko zor diet. Egunero eramaten naute Zumaiara autoz eta entrenamendua bukatu arte zain egoten dira. Gustura etortzen dira, gainera bitartean txakurra paseatzen dute. Baina beraientzat ere esfortzua da eta eskertu egiten diet". Unai txikia zenean aitak piragua bat erosi omen zuen, itsasoan erabiltzeko egokitua, gaur egun Unaik erabiltzen duena baino zabalagoa. Zerbait susmatzen zuenaren seinale…

Unai Gereka



Badajoz, maiatza. Espainiako Maratoi Txapelketa. Irabazi ezkero Europako eta Munduko Txapelketan jokatzeko txartela eskuratuko zenuten.
Bai. Dena Sevillan hasi zen. Helburua K2a Europa eta Munduko Txapelketetara sailkatzea zen, baina denboraldi hasieran dena zegoen airean. Sevillan, martxoan izaten den neguko lasterketan, oso lasterketa ona egin genuen Imanolek eta biok, bata bestearen jarraian sartu ginen. Orduan, Xabier Osak, gure entrenatzaileak, gurasoei esan zien zerbait egitea zegoela gurekin K2a osatuta. Aurten Eslovakiara joango gara! esan omen zien.

Hala, ordutik Badajozko lasterketa arte, K2a hobetzen joan ginen. Helburua Badajozen txartela eskuratzea zen. Entrenamendu gogorrak egin genituen eta Badajoza oso maila onean iritsi ginen. Oso lasterketa ona egin genuen, bigarrenari 47 segundo atera genizkion. Ez genuen espero horrela egitea. Podiumean egotea espero genuen, baina ezaurrena bukatzea eta gainera halako aldearekin. Sekulako poza sentitu genuen. Momentuan ez ginen ohartu ere egin zer irabazi genuen. Izan ere, Espainiako txapeldunak geratzeaz gain, Europako eta Mundialeko txapelketetan jokatzeko aukera lortu genuen.

Hau lortuta, hurrengo helburua Europan domina lortzea izan zen.
Hori da. Xabik esan zigun Europara sailkatuta, helburua dominaren bat lortzea izango zela. Guk ere, Imanolek eta biok, hori lortu nahi genuen. Behintzat domina etxera ekartzen saiatu. Eta beno, azkenean lortu genuen, hirugarren bukatu genuen.

Urteetako lanaren ondorio izan da, ezta?
Garbiki, bai. Infantiletan hasi ginen serioago entrenatzen Imanol eta ni, eta hobetzen joan ginen, bai teknikan, erresistentzian… Kadetetan entrenatzailez aldatu genuen, Xabier Osa jarri zitzaigun, eta berarengandik asko ikasi dugu, teknikaz batez ere. Orain lau urte denok sinatuko genukeen orain egin dugun denboraldia. Urte askotako lana izan da hau eta Xabierrek guregan jarri zuen konfiantza. Ikusi zuen jarrera ona genuela entrenatzeko eta lanerako gogo asko, eta horrek bere emaitza izan du.

K2an beti izan da Imanol zure bikotea?
Bai, hasieratik biok jarri gintuzten piragua berean, infantiletan. Hasieran kosta zitzaigun ohitzea, bakoitzak alde batera egiten genuen, piraguak balantza egiten zuen… Gogoratzen naiz Espainiako Txapelketara lehenengo aldiz joan ginenean bederatzigarren egin genuela. Kantari joan ginen lasterketan, hain gaizki gindoazen…

Jende askok ez du jakingo beharbada, eta kontatu noiztik izaten dituzun lasterketak.

Urria hasieran hasten da gure denboraldia. Otsailean izaten dugu lehen lasterketa, beraz ordura arte aurredenboraldia egiten dugu. Gero, otsaila erdialdera Gipuzkoako Txapelketa izaten dugu. Ondoren, hilabetera Euskal Herriko Txapelketa eta gero Sevillara joaten gara Espainiako Neguko Txapelketa egitera. Lasterketa hau 5.000 metrokoa izan ohi da. Handik aurrera, lasterketak edonon izaten ditugu. Ia bi astetik behin mugitzen gara Castrora, Pontevedrara, Banyolesera… Espainia guztian zehar mugitzen gara ia. Ostiralean 8-9 orduko bidaia egin furgonetan eta igandean egiten dugu etxera buelta. Bederatziko furgonetan joan izan gara, eta atzean, erremolkean, piraguak.

Gogorra egiten zaizu?

Neguan gogorra egiten da hotzagatik, arropa jantzi behar duzulako, euria, haizea… Baina beharbada niretzako udaragogorragoa da. Eguraldi ona egiten du, baina ezin izaten dugu hondartzara joan. Urte asko noa horrela, eta ohituta nago egia esan, gainera gustura egiten dudan gauza bat da. Kirola bera ere gogorra da, asko exijitzen du fisikoki. Baita mentalki ere. Gauza asko sakrifikatu behar dituzu egunero entrenatzeko eta bi asteburutik behin kanpora joateko. Eta ahaztu gabe, eskolarekin ere uztartu egin behar duzu.

Urte hau egin zaizu bereziki gogorra, Europako eta Munduko Txapelketak prestatzeagatik?

Gogorra ez, baina luzea beharbada. Beste urteetan, abuztu erdirako bukatzen dugu denboraldia. Aurten iraila bukaeran amaitu dugu, iazko urritik hasita. Luzea egin zait. Entrenamendu gogorragoak egin ditugu, baina neguan ohitu ginen horretara. Dieta aldetik ere arazorik ez dut eduki. Niri asko gustatzen zait jatea, denetarik jaten dut, ondo gainera, baina dena erretzen dut kirola egiten. Alde horretatik ez dut zainketarik egin.

Denboraldia amaituta, zein ondorio ateratzen duzu?

Oso gustura nago egin dugun denboraldiarekin. Pena dut Mundialean gaixotu egin nintzela, eta sentsazioa dut dena ez nuela eman. Beno, nuen guztia eman nuen, baina buruan dut ez banintzen gaixotu zer pasako ote zen, eta hori ezingo dut inoiz jakin. Horrek amorrarazten nau pixka bat. Baina horrek hurrengo denboraldian gauzak hobeto eginarazteko grina sortu dit, eta deseatzen nago berriro lanean hasteko. Denboraldia perfektua ez, baina oso ona izan da bai niretzat eta baita talde osoarentzat ere.

Taldearen indarra eta bultzada beharrezkoa izan da, ezta?

Jakina. Denok talde bat osatzea garrantzitsua da eta oso talde ona daukagu. Denok elkar laguntzen gara. Esaterako, besteek denboraldia bukatuta, gu mundialera gindoazenok bakarrik ez entrenatzeko asko gurekin etortzen ziren, gure piraguak Eslovakia eta Estatu Batuetara eramateko aurrena Madrilera eraman behar ziren eta horretarako ere jendea prestatu da, "Denok Oklahomara" zozketa antolatzeko… Laguntza honi esker, eta ondo pasatzen dugulako ere, ez zait denboraldia hain luzea egin.

Piraguan hasi zen lehen urtean Gipuzkoako txapeldun atera zen Unai.

"Pena dut Mundialean gaixotu egin nintzela, eta sentsazioa dut dena ez nuela eman"

Ongietorriak: Getarian Espainiako txapelketa irabazi eta gero egin ziguten omenaldia. Jende asko hurbildu zen: lagunak, txistulariak, pankarta eginda… Oso hunkigarria izan zen. Mundialetik bueltan elkarteko lokalean egin ziguten Itxas Gainekoek. Bertakoak, familia… Getariatik ere jendea etorri zen.

Denon artean Oklahomara: zozketa berezia antolatu zuten. Diru laguntza handia izan genuen, kostu guztia ordaintzeko gai izan ginen. Nire aita ere harrituta dago jendearen erantzunarekin. Bi hilabetetan 9.000 boleto saltzea lortu genuen. Gainera 1.000 euro baino diru gehiago lortu zen jendeak emanda. Proiektu hau gurasoen artean, eta klubekoen artean osatu zen. Denei eskertzen diet nik, lagundu duten guztiei, bai nik eta baita nire guraso eta klubeko pertsonek ere. Azkenean, beraiengatik joan gara. Hartu duten lana, egin duten aportazioa, gurekin entrenatu duten guztiei, eskerrik asko!

Gereka eta Barruetabeña Europako Txapelketan aritu zireneko irudiak dira. Aurrenekoa *porteoa* egiten eta bigarrena helmugara iritsita.

Ekainak 14 Europako Maratoi Txapelketa. Piestany, Eslovakia.

Lasterketa baino hiruzpalau egun lehenago abiatu ziren Bilbotik Unai eta Imanol, eta Irati Osa (nesketan parte hartu behar zuen beste zumaiarra) Eslovakia aldera. "Aurrena Bilbotik Madrilera hegazkinez, han 6 orduko eskala egin eta Austriara zihoan beste hegazkin bat hartu genuen. Hara iritsitakoan autobusa hartu eta Eslovakiara". Bidaia luzea izan zen, baina aurretik hainbat oztopo gainditu behar izan zituzten. "Espainiako Federazioak ez zigun bidaia ordaindu. Soilik piraguak hara eramatea. Baina noski, piraguak lehendabizi Madrilera eraman behar izan ziren. Beraz, hara emateko gastua ere klubak ordaindu zuen, gure bidaia osoaz gain" esan du Unaik. Gainera, arroparekin ere arazoak izan zituzten. Espainiako selekzioko trajea erostera derrigortuak zeuden. "Guk erosi behar izateaz gain, ez zeudela eginda esan ziguten. Eta noski, uretako arropa derrigor behar genuen, horrekin lehiatzeko. Baina kasualitatez podium egin ezkero, uniformea ere behar genuen, Espainiako selekzioko txandala, alegia" kontatu du. Orduan, badaezpada ere erosi egin zuten. Arropak oso justu iritsi ziren: "Gu Eslovakia joan baino 2-3 egun lehenago bakarrik".

Lasterketa: Egun horietan izugarrizko beroa egiten zuela gogoratzen du Unaik. Baina beraien lasterketa 09:00etan hasten zen eta beraz, ez zuen oraindik hainbeste berotzen. "Oso urduri geunden, maila horretako lehenengo lasterketa zen guretzat, nazioarteko bat. Ez genekien ezta non geunden ere".

Izkinatik atera ziren, lehenengo dortsalarekin. Maratoia egiteko distantzia 22,5 km-koa da, zirkuitu bati 6 buelta eta 5 porteo (piragua eskutan korrika egitea) eginez. "Hasi eta berehala, lehenengo talde bat osatu genuen hungariarrekin, alemaniarrekin eta ingelesekin batera. Baina ziaboga batean, boila bat jan genuen. Oraindik ez dakit nola egin genuen hori, ez dakit zer pasa zitzaidan burutik momentu horretan (berak zuzentzen du piragua, aurrean joaten baita). Imanolek esan zidan: Gereka, ze!". Azkar-azkar atzeraka arraun egin eta jarraitu egin zuten. Oraindik lasterketa erdia falta zen. Talde hartan hiru bikote geratu ziren eta Unai eta Imanol euren atzetik, laugarren. Baina talde hartan, ingelesak atzean geratu ziren, eta horiek harrapatzeko gai izan ziren. "Harrapatu eta porteo batean pasa egin genituen". Lasterketa bukatzeko azken buelta falta zenean, Xabik, entrenatzaileak momentuaz gozatzeko esan zien. "Aurrean zihoazen biak ezin genituen harrapatu, eta atzetik zetozenak guri ere ez. Azken buelta irribarrez egin genuen, pozik hirugarren egingo genuelako. Bukaeran eskuak altxa genituen. Badajozekoa baino euforia gehiagorekin bukatu genuen".

Etxekoak ere han egotea berezia izan zen beraientzat. "Bukatu eta denen besarkadak, musuak… Geuretzako ere poztasuna handiagoa izan zen. Europako hirugarren postua beraiei eskaintzea askoz poz handiagoa ematen du".

Argazkia Oklahoman atera zuten, Unai, Imanol eta Irati Osa zumaiarrak. Zumaiako ongi etorriko argazkia da bigarrena. (Argazkia: Baleike).

Irailak 27 Munduko Maratoi Txapelketa. Oklahoma, Estatu Batuak.

Europako Txapelketarako gertatu bezala, oraingoan ere oztopoak izan zituzten. Kasu honetan piraguarekin, izan ere, abuztua erdirako bidali egin behar zen eta denbora askorik ez zuten izan parte hartu behar zuten piraguarekin entrenatzeko. "Europako Txapelketan lehiatzeko erosi zen piragua berria eta orduan ere gutxi entrenatu genuen harekin, nahiko justu iritsi baitzen. Oraingoan berriz, hilabete lehenago bidali egin behar izan zen". Federazioak piragua guztiak edukiontzi batean sartu eta itsasontziz iritsi ziren Estatu Batuetara.

Unaik hegazkinez egin zuen bidaia, baina piraguak bezalaxe, luzea egin zitzaion. Gainera, oztopoz beteta izan zuten. "Lehenengo arazoa Bilbon eman zen. Overbooking-a zegoen hegazkinean eta hasiera batean kanpoan geratu nintzen. Guztira 7 pertsona geratu ginen eserlekurik gabe. Gero, hiruntzat tokia libre zegoela esan, eta zorionez, zortea izan nuen nire izena esan baitzuten". Madrilen selekzioko gainontzekoekin elkartu eta Chicagora hartu zuten hegaldia. "Aduana pasatzen berriro ere arazoa. Txartelean, Imanol eta nire izenak ez ziren osorik azaltzen, abizenak eta guzti ez baitzen osorik sartzen. Pasaportea erakustean, gure izena behar bezala jartzen duenez, ez ote ginen pertsona berdinak galdetzen ziguten. Azkenean, gaizki ulertua konpondu genuen". Han beste hegazkin bat hartu eta Oklahomara iritsi ziren.

Gaixorik: "Bigarren egunerako gaixotu egin nintzen eta egun batzuetan iraun zidan ondoezak. Sukarrarekin egon nintzen, mareatuta, entrenatu gabe… Ni baino okerrago Imanolek pasa zuen, sufritzen zegoen, osatuko ote nintzen pentsatzen". Ostiralerako hobeto jarri zen baina hala ere gorputza ez zuen bere onenean. Lasterketa larunbatean zen.

Lasterketa: "Hasiera oso ona eman genion, baina azkenean astea gaixo pasatzeak eragina izan zuen". Laugarren itzulira arte primeran joan ziren, bigarren talde batean, hirugarren bukatu zuten hungariarrekin batera. Baina handik aurrera sufritzen hasi zen Unai. "Laugarren buelta amaieran Imanoli esan nion ezin nuela gehiago. Porteora sartzean, frenatu egin behar da pixka bat eta hori egitean buelta eman eta uretara erori ginen". Atzetik zentozenak asko gerturatu zitzaizkien orduan. Azken bigarren buelta egiten ari ginen, eskuak ere ez nituen sentitzen, kalanbreak nituen. Geratu egiten nintzen eta Imanolek arraunean jarraitzen zuen. Azkeneko porteoan piragua ere erori egin zitzaidan. Buelta txikia falta zen bakarrik, azkenekoa. Imanolek ulertzen zuen zein egoeratan nengoen, oso ulerkorra izan zen. Azkenean hamargarren bukatu genuen". Larunbata pixka bat desmoralizatuta pasa zuen. "Aitak deitu ninduen, eta Getarian izugarrizko giroa egon zela esan zidan, guztiak lasterketa pantailan ikusten. Aita oso hunkituta zegoen egin genuenarekin, eta jendearen animoak bidali zizkidan".

- GetariAuzolanean -

Urriaren 11ean, GetariAuzolanean ekimenean 20 lagunek hartu zuten parte. Goizeko 09:30ean plazan geratu ziren eta Katxaporuntz igo ziren. Bertan, ingurua txukundu eta Katxapo bera garbitu eta txuriz margotu zuten.

Nahiz eta eguerdiko ordubatak arte lanean jardun, lan guztia ez zuten amaitu eta beste bi larunbaterako geratu ziren falta zena amaitzeko: beste pintura esku bat eman eta eserlekuak eta zutabeak grisez margotzeko falta baitziren.

Ekimena giro jatorrean burutu zuten egun guztietan eta parte hartu zuten guztien artean, eta oso gustora geratu ziren Katxapo txukundu eta margotu amaitu eta gero.

Lanak amaitu ondoren, plazan merezitako otordua egin zuten hiru egunetan.

Orain, denbora luzez egin duten lana errespetatua izatea espero dute. Izan ere, San Anton mendira igo, hain paisaia ederrez gozatu eta Katxapo zegoen bezala ikustea pena bat zen.

UDAZKENEKO EGUN ARRUNT BAT ESNATU DA GETARIAN.
HAUXE BAI EGUN EARRA GAURKUA!!!
BAI HOIXE!!!
HAU LASAITASUNA KALIAN !!!
TURISTAIK GABE...
HAU DA PAKIA!!!
UME BUILOSO HOIEK DANAK ESKOLAN...
MOTZ
HOIA ARRAIZ BETETA...
TA EZ KOTXEZ BETETA!!!
URTETIK URTEA HERRIAN GEOZ TA ALBOROTO GEHIO DAON IRUIPENA ZEKAT.
BAI NESKA!!! GARAI BATEN GURE AITONAMONAK LASAIO BIZIKO LITUNAN!!!
Edur

Diamantezko familia

1940. urtean ireki zituen ateak Eulali bezala ezaguna den dendak. Diamantezko ezteiak ospatzeko bidean, urria bukaeran pertsianak itxi zituen herriko betiko saltoki honek. "Amari asko kostatu zaio erabaki hau hartzea. Bere soldata ez da inoiz etxean ikusi, ekonomikoki ez zen etxera soldata bat sartzen, baina zortzi pertsona bizi izan gara hontatik, dendatik. Denda izan da beti gure etxeko sustentua" azaldu dute Axun Ucinen seme-alabek. Etxeko egoera aldatu zaie, eta hainbeste urte ondoren, etapa berri bati ekingo diote guztiek, Axunek bereziki. "Guztira 44 urte eman ditu dendan, eta lan asko egin ondoren badu garaia bizitzeko, bizitzaz gozatzeko" aipatu dute Gaizkak eta Argizkak. Hauexek dira, denda baten, baina era berean familia baten elkartasuna eta maitasuna laburtzen duten irudiak.

Eulalinekoak bezala dira ezagunak familia osatzen duten partaideak. Baina iragana aztertuz, denda ireki zuen pertsona amona Eulaliren ama izan zela jakin da. "Amonaren ama Axuntxion Galdos zen, eta bera izan zen denda jarri zuen pertsona" azaldu dute. 1940. urtea zen eta Arnao Generalaren kalean ipini zuen denda, Artzape parean. Ondoren, amona Eulalik hartu zuen dendaren ardura, eta Axun alabarekin batera biak egon dira bertan lanean.

Era guztietako produktuak saltzeaz gain, zerbait gehiago izan da denda beraientzat. "Etxeko zortziok bertan egin dugu bizitza, etxera afaltzera eta lotara bakarrik joaten ginen" kontatu dute Gaizkak eta Argizkak. Izan ere dendara sartu eta erakustokia eta produktuz betetako apalez gain, atzean sukaldea eta mahaia zuten. "Gure aitona Xalbadorrek beti egiten zuen bazkaria bertan".

◀ **Dendaren jaiotza**

Amona Eulali eta ama Axun dendako arduradun nagusiak izateaz gain, familia osoak lagundu du dendako eginbeharretan. "Amona eta ama dendan, aitona sukaldean eta bi osabak (Juan eta Tomas, amonaren anaiak) enkarguak eta banaketak egiten… familia guztia egon da tartean" azaldu dute Axunen seme-alabek. Asteburuetan eurak ere joaten ziren laguntzera, jakina. "Beharko joan", esan dute barrez.

Azkenean, asteburutan egoten zen lan gehien eta normalean emakumeak erakustoki atzean jarduten zuten eta gizonak banaketa lana egiten. "Astean zehar moldatzen ziren, baina banaketa gehiena asteburutan egiten zen". Bezeroak dendara deitzen zuen eta bere eskaria egiten zuen. Beraiek dena apuntatu eta etxera eramaten zien, zerbitzu hau kobratu gabe. "Bezero bakoitzaren izena poltsetan jartzen genuen ez nahasteko, eta bakoitzaren kanbioak aparte eramaten genituen". Oraindik ere hainbat bezeroren izenak gogoratzen dituzte. "Bai, bai. Primi, Mirari, Ulacia, Espe, Enkarna, Arotza, Maritxo…".

Etxeetara eramateaz gain, baporeei ere eramaten zieten behar zutena. Hauen banaketari biberak deitzen zitzaizkien. Kostera eginda etxera bueltatzen ziren bakoitzean, berriz itsasoratzerako biberak beti prest izaten zituzten. "Salbatore jaien aurretik etortzen ziren udaran, eta joan baino egun bat lehenago lan askoko eguna izaten zen guretzat, dena kargatu egiten baitzuten janariz. Frutak, berdurak, butanoa, baserriko tomateak, urak… dena prestatuta izaten genuen itsasontzian sartzeko".

▼ **Emakumeak dendan eta gizonezkoak banaketan**

▲ **Eulalineko pastak**

Denetarik saltzen zuen denda horietakoa izan da Eulalia Olaskoaga janari denda. "Txerrikitik hasi eta edariak, jogurtak, fruta, berdurak, binbo-ak, butanoak. Herri txikitako ohiko denda izan da. Butano zaleari gure etxerako butanoaz gain beste batzuk ere hartzen genizkion gure bezeroei gero banatzeko. Eta horrela beste hainbat gauzekin ere: hainbat eskutitz, norbanako enkarguak, soziedadeko giltzak...". Herriko produktuak ere saldu dira bertan, baserriko produktuak. "Bezeroek asko eskertzen dituzte baserriko produktuak, eta garaian garaikoa baserritarrei eskatu eta dendan saldu da" esan dute.

Baina produktu izarra zerbait izan bada, Eulalineko pastak izan dira. "Denda Artzapen zegoenean, mugimendu handia zen, gazte jende asko elkartzen zen bertan eta gauza asko erosten zituzten: Binbo, Boni, Pantera Rosa, Tigreton… Eta horietaz gain, *Pastas Eulali* deitzen zirenak zeuden" gogoratzen dute. Reglero markako pastak ziren, eta banaka saltzen ziren. "Pasta bakoitzak 7 pezeta balio zituen eta gazteen plana pasta batzuk eta koka-kola lata erosi eta Artzapen egotea izaten zen".

Inauteriak beti izan dira bereziak Axun amarentzat. Umeak zirenetik jantzi ditu Argizka eta Gaizka, eta senar-emazteak ere beti mozorrotu izan dira.

Horren seinale ere izan da denda. "Erakustokia beti prestatu du, eta udaletxeak mozorro lehiaketa jarri zuenean, urtero parte hartu izan du, eta irabazi ere bai" kontatu dute. Dendako produktuak erabiliz mozorrotu izan du beti erakustokia: "Lan asko hartu izan du gure amak eskaparatea prestatzen. Bera gainera jostuna da, eta arropa txikiak egin izan ditu produktuei edo panpinei janzteko". "Nire zaldia ere ibili zuen behin erakustokia adornatzeko", gehitu du Aimar bilobak.

Horrez gain, Babexa dendari elkarteko lehendakaria izan da Axun. Orain gutxi pasa du testigua. "Herriko talde eta dinamika askotan parte hartu du: odol emaileetan, Gure Txerun, Guraso Elkartean…".

Erakustoki dotorea ▼

Azken urteetan Elkano kalean egon da zabalik denda. Azken arnasak hemen eman ditu, baina familiak aurrera jarraituko du, guztiak bat eginda. Azken argazkia ere hemen doa, eta Argizkak eta Gaizkak eman izan nahi duten omenaldiaren azken balada ere bai, izenez izen.

Osaba Tomas: Dendara makina bat ogi eta egunkari ekarritakoa.
Aitona Xalbador: Makina bat marmitako eta bazkari prestatutakoa denda zaharrean.
Amona Eulali: Kalkulagailu gabe, buruz batuketa denak egin eta bueltak emandakoa.
Aita Joxe: Dendako brikolaje lanak egindakoa.
Osaba Juan: Dendako 78 urteko txalupa mutila. Egindako lan pila eta harrapatutako txibi begi handiak saldutakoa ere bada.
Gaizka eta Argizka: Beti bezala, bazterrak nazkatzen.

Eta hau guztia koordinatzen, erakustoki atzean egoteak eskatzen duen pazientzia guztiarekin, momentu alai eta tristeetan beti karrotik tiratzen, monumentua merezi duen gure ama Axun.
Eskerrik asko AMA !!!!

◀ **Ez adiorik eta irribarrea ahoan!**

Zinemaldia

Irailaren 26an, ostirala, Zinemaldira joan ginen. Goizeko bederatzietan autobusa hartu genuen Lehen Hezkuntzako ikasle guztiok. Autobusean kantatzen joan ginen: Realeko ereserkia, "Pintxo-pintxo", "losintxak"…

Belodromora iritsitakoan, eseri eta "sardina bat" kantatu genuen, ikastetxe denak batera. Pelikularen izena "Friends" zen. Protagonista Kotake izeneko ume txiki-txiki bat zen eta bere anaiarekin munstroen uhartera joan ziren perretxiko bila, bere ama gaixo zegoelako. Etxera itzuli behar zutenean, Kotake munstroen uhartean geratu zen. Oso film polita ikusi genuen, eta gomendatzen dizuegu ikustera joatea.

Ondoren, Igeldora joateko autobusa hartu genuen. Autobusak Igeldo gainean utzi zigun, bertan hamaiketakoa egiteko. Hamaiketakoa bukatu eta oinez Kukuarri azpiko parkera joan ginen bazkaltzera. Bazkaldu ondoren, jolasean ibili ginen.

Jolastu ondoren, oinez Orioko autopista sarreraraino joan ginen, autobusa hartu eta Getariara bueltatu ginen.

Guk oso ondo pasa genuen, bai Zinemaldian eta baita parkean ere.

6A gela.

-- IRAILEKO DENBORAPASEN SOLUZIOAK

A	U	N	M	O	L	U	R	S
E	F	E	Q	L	P	B	E	T
I	C	T	B	M	Z	B	E	E
L	T	J	S	E	A	P	L	D
A	S	K	I	Z	U	G	K	B
I	L	D	U	E	Y	B	A	E
A	T	D	O	P	X	V	N	L
E	X	K	A	A	J	P	O	P
X	F	A	Z	M	O	H	Q	O
V	F	A	U	O	A	W	O	T
U	U	E	J	E	Y	R	X	Z
A	J	Y	F	Y	M	Y	X	U
A	K	E	R	R	E	G	I	A
I	E	R	R	U	E	R	A	G
S	A	H	A	T	S	A	G	A
T	A	G	A	O	O	F	H	E
O	Y	S	E	B	G	X	I	T

K	N	Y	E	H	W	E	O	
T	K	A	W	E	M	O	L	C
E	H	A	N	P	Z	B	E	J
H	H	A	E	Z	W	W	W	
U	E	G	Y	K	Y	U	H	
E	A	E	U	Z	Y	E	A	A
U	G	S	M	E	V	V	I	
L	B	I	O	Z	Q	I	T	
A	A	A	E	H	O	E	V	
T	R	N	N	I	A	E	K	
R	A	E	O	Z	Y	D		
C	T	G	S	K	T	X		
M	H	T	E	Q	U	K	F	
D	V	K	Q	G	G	U	A	
D	I	A	J	P	U	I	F	
R	E	R	I	E	T	A		
Z	V	O	E	V	W	G	M	

3	6	8	9	5	4	7	2	1
5	2	9	7	1	8	6	4	3
7	1	4	3	6	2	5	8	9
9	5	1	2	8	6	4	3	7
2	4	7	1	3	9	8	5	6
6	8	3	5	4	7	9	1	2
1	7	5	4	9	3	2	6	8
4	9	6	8	2	1	3	7	5
8	3	2	6	7	5	1	9	4

] Gaglo gaztelekua

Udarako erritmoa urrutiko oroitzapena bihurtuta, ohiko errutinan sartua da jadanik Gaglo gaztelekua. Denbora tarte honetan aldaketa asko ematen dira. Alde batetik, udarako ekintzen azken egunean gurekin bost urte igarotako neska/mutilei agur esan genien. Bestalde, irailean gaztetxo talde berriari ongi etorria egiteaz gain, hauekin lehen harreman sareak lantzen hasi gara. Gurekin bost urte igaroko duten talde berria ezagutu, ulertu, ondo pasatu eta sortuko diren gatazkei irtenbideak bilatzeko gunea izatea nahi du Gaglok.

Gaztelekuan bost belaunaldi ezberdinetako gazteak harremanatzen eta aritzen dira bertan. Aniztasun honek aberastasun berezia ekartzen dio Getariako gaztelekuari, gertakari hau beste herrietan ez baita oso ohikoa. Denek aurretik elkar ezagutzen baldin badute, aurreiritzia ez du tokirik eta gazte talde ezberdinekin harreman sareak aberasten dira bertan.
Sartu berriak diren gazte talde berriaren ilusioa begi bistakoa da. Beraientzat aisiaz disfrutatzeko toki ezin hobea topatzen baitute bertan: lagunekin egoteko toki goxoa eta intimoa, jolas ezberdinak eskura, txapelketetan eta tailerretan parte hartzeko erakargarritasuna, irteerak beraien koadrilekin konpartitzeko aukera, eta oraindik espero ez dituzten dinamika eta egitasmo ezberdinetan parte hartzeko aukera.

Hau guztia lehengo pertsona konta dezaten, gaurko honetan hiru gazteri eginiko elkarrizketa txiki bat ekarri ditugu lerro hauetan:

Gogoan zenuten Gagloko partaide izateko?
Bai; joko interesgarriak daudelako, euria egiten duenean bertan egon daitekeelako, jende asko elkartzen delako bertan eta guretzat aukera berri bat delako.

Zer transmititu dizu Gaglo gaztelekuak lehengo kontaktu honetan?
Oso erakargarria. Jolas asko daudelako, eskulanak egiten direlako eta asko dibertitzen zarelako.

Zer espero duzu gaztelekuarengatik igaroko dituzuten urte hauetan?
Ondo pasatzea eta gauza asko egitea. Agian, denborarekin beti jolas berdinak baldin badaude gehiago aspertuko garela pentsatzen dut.

Zer gustatu zaizu gehien? Eta zer gutxien?
Gehien, mahai jolasak, eskulanak, pin pon eta futbolina. Bestalde, ideia oso ona da mugikorren erabilera gune batzuetan debekatzea, bestela uneoro gailuen menpe egongo ginateke. Gutxien, txutxeak ezin direla gazteleku guztitik jan.

Zer esango zenioke oraindik gaztelekua ezagutzen ez duen bati?
Oso dibertigarria dela, inbidia emango nioke. Ondo pasatzen dela eta apuntatzeko.

Argazkian: 2002.urtean jaiotako neska talde bat gaztelekuan: Arantza, Sara, Arene eta Oihana.

… eta bonbillak piztu ziren!

Uda joan da eta argi orduak gero eta urriagoak dira egunetik egunera. Lehenago iluntzen du eta inguruak beltzez margotzen dira. Eguzki izpiek gure egunerokotasuna baldintzatuko balute, goiz erretiratuko ginateke urteko sasoi honetan. Orduan estimatzen da gehien kaleko argiteriaren laguntasuna; iluntasunean kalean ibiltzea baimentzen duena eta gaueko orduetan lasai ibiltzeko segurtasuna ematen duena. Kaleak argiteria elektrikoz hornitzea pauso garrantzitsua izan zen, baina noiz iritsi zen argiteria hori Getariara?

Getariako kaleak argiteria elektrikoz hornitzeko nahiaren lehen erakustaldia 1896. urtean gertatzen da. Urte horretan oraindik, Getariako kaleak petrolio argiz argiztatzen ziren, inguruko herriak argi elektriko bidez argiztatzen hasiak ziren bitartean. Arrantzale herria izanik, gauetan kalea ondo argiztatua izateak zer nolako garrantzia zuen jakinik eta inguruko herriak adibidetzat harturik, Getariako Udal Batzordeak hiribilduan argiteria elektrikoa jartzeko erabakia hartu zuen.

Herriko txokoak arretaz aztertu eta argiak hiribilduko eta inguruetako zein puntutan jarri behar ziren zehazteko batzorde berezi bat sortu zen. Behin lan hori eginda, 1896ko martxoaren 5ean herriko argiteria elektrikoa jartzeko lanen enkantea egiteko balditza plegua onartu zen. Enkante publiko honek, ordea, ez zuen arrakasta handirik izan. Dirudienez, Udalak ezarri zituen baldintzek ez zuten eskatzailerik erakarri. Horrela, 1898 eta 1900 urteetan baldintza hobeak eskatzen zituzten bi eskatzaileren proposamenak iritsi ziren Udalera, baina hauek ere bertan behera geratu ziren. Egitasmoa aurrera atera ezin horretan, Getariako kaleak petrolio argiz argiztatzen jarraitu ziren.

Ez zen 1900 urteko azaroa arte izan, baldintza berri batzuekin, argiteria elektrikoaren horniketaz arduratuko zen eskatzaile baten oniritzia lortu zutela: Jose Vicente Echeverria jaunarena. Horretarako berriz, 1896. urtean ezarritako baldintzak berrikusi behar izan zituzten. Horrela, argiteriaren ustiaketa 10 urtetik 12 urtera igotzea eta emakidadunak urte horietan telefono publikoaren erabilera pribatua egiteko aukera izatea adostu zen, besteak beste. Udalak, benetan behar zen argitasuna lortzeko, 55 argi inguru kokatzea eskatzen zuen, baina azken esleipen honetan ez da zehazten zenbat goritasun-lanpara jartzeko konpromesua hartzen zuen emakidadunak. Bai ordea, argiztapen publiko eta partikularrean eta baita linea telefonikoan gerta zitezkeen arazoei aurre egin beharko ziela.

Azkenik, 1901ean ezarri zen Getariako argiteria elektrikoa. Hala ere, Udal artxiboko agiriek erakusten dutenez, hurrengo urteetan zenbait arazo emango zituen argiteri berri honek.

herriko toponimia / Andres Alberdi

Orroaga /Orrua

Getariako partean, Zumaiatik gertu dagoen hondartza eta ingurua da Orroaga (*Orrua*), azken urteotan batere hondarrik gabe ageri bada ere parajea.

Orroaga izenez ageri da paperetan (lehen aipamena 1416koa da). Izen hori, ordea, gure ahozko moldean, honela esaten da: *Orrua*.

Antzeko edo izen bereko parajeak badira Euskal Herriko beste herri batzuetan ere: Orroaga erreka eta baserria, Arrietan (B); Orroa, Imotzen (N); Orrota, Eratsunen (N), Orrotegi, Orozkon (B).

Zer esan nahi du *Orroaga*k? Bukaerako *-aga* atzizkiak tokia adierazten du, eta ugaritasuna ere bai batzuetan, beste hauetan bezala: Larrañaga, Gorostiaga, Sahatsaga… Itxura denez, Orreaga izenaren aldaera izan daiteke, eta oinarriko *orre*/*orra* hitz horrek *ipuru* hitzak duen esanahi bera du (gaztelaniaz, enebro, *Juniperus communis*). Beraz, ipuru zuhaixka asko dagoen tokia esan nahi du.

*Orroaga*tik ahozko moldeko *Orruara* dagoen aldea euskal fonetikan sarri gertatzen den aldaera da: 1) *-aga* atzizkiaren bokal arteko *-g-* galtzen da (beste hauetan bezala: dago > *dao*; eguzki > *euzki*), eta bi *a* horiek bat egiten dute: Orroa(g)a > *Orroa* (Eitzaga > *Eitza*n bezala); 2) *Orroa*ren bukaerako *-oa* hori *-ua* bilakatzen da (hauetan bezala: astoa > *astua*, etxekoa > *etxekua*).

Bitxikeria bat: kondaira batek dio Arridokietako Ama Birjina paraje horretan agertu zela itotzeko zorian zegoen gazte bat salbatzera.

txikiegia agian / Amaia Irazabal

Ez dakit

Ez dakit noraino iritsiko naizen,

ihesi nabilen edo zerbaiten bila.

Ez dakit nondik joaten den nora,

ez dakit zer naizen ere,

zein den zer hori,

nola den ezer izan,

nora doan, nondik hura,

zertan den, zertarako.

Ez dakit zerk izan duen, zergatik.

Ez dakit, haatik dena baino… baino hementxe nago.

"Heroi" anonimoak

"Gure arbasoek, eguneroko esfortzuarekin ondorengoen formakuntza eta baliabideak hobetzea ahalbidetu zuten, gure herriaren garapena erdietsiz. Hori horrela, eskultura hau ahalegin eta lan anonimoarekin egungo ongizatea lortu zuten belaunaldiei eskainia dago"

Abuztuan topatu ginen, ezustean, aipatu eskultura eta testuarekin, Lanzarote hegoaldeko Playa Blanca herrian. Itsas ondoko pasealekuan gindoazen, era guztietako jatetxe, souvenir eta marka onetako stand-en artean, ezusteko atsegin hura izan genuenean.

Hala, hasierako harriduraz gain, poza eragin zigun, eta hausnarketarako bidea eman ere bai. Bereziki, turismoaren eta memoriaren inguruan. Hasiera batean, agian, erlazionatuta ez diruditen bi gai, baina une hartan, elkarri zuzenki lotuak ziruditenak.

1-Turismoa. Eskulturaren ondoko testua irakurtzen ginela, beste turista batzuk gerturatu ziren (gurasoak eta bi semealaba). Eta testuari begiratu ere egin gabe, eskulturari semearen bisera jarri, eta argazkia atera zuten, eskulturari lepotik helduta, irribarrea ezin eutsiz. Klik-aren ostean, segituan urrundu ziren, kameran ea ondo atera ote ziren egiaztatzen zuten bitartean… Testua ongi ikusteko moduan zegoen, gazteleraz zein ingelesez.

Ziurrenik ez zuten intentzio txarrik izan: gaztetxoak ez ziren ohartu; gurasoek ez zuten inongo arretarik jarri eskulturaren zergatia jakiten. Baina egoera hura ikusteak sentsazio txarra utzi zidan. Gertakari txiki soila izan zen, beharbada esangura gabea, baina turismo eredu zehatz baten metafora izan zitekeena. Masako turismoa, azalekoa, oinarri eta printzipioz biluztua, diru iturri hutsala, herritarrekiko eta bere historiarekiko arrotza. Nire herrirako nahiko ez nukeena… Baina estatuko puntu askotan nagusitzen ari dena. Jada, hainbat lekutan, herritarren haserrea eragiten ari dena.

Argi dago turismoa sektore estrategikoetako bat bilakatu dela. Eta hain juxtu horregatik da ongi pentsatu beharrekoa zein den nahi dugun turismo mota. Aurrez aipatu eredua izan liteke, sektore jakin batzuen interes ekonomikoek gidatua eta turistentzat diseinaturiko proiektu erraldoiak lehenesten dituena. Edo herria, bere historia, ingurunea eta biztanleria errespetatzen dituen turismo orekatu baten alde egin dezakegu, guztien onurak bilatuko dituena. Aukera bateko zein besteko adibideak baditugu inguruan.

2-Iragana-memoria. Hasieran aipatu gertakariarekin lotu daitekeen gai da, eskultura hura memoria ez ahazteko saiakera txiki bat izan baitaiteke, neurri batean. Izan ere, duela ez asko arte, lehen sektoretik bizi zen herria zen Lanzarote. Egun, gune turistikoetako luxuzko hotel eta yate artean, sustraien gero eta zantzu gutxiago geratu arren. Ildo horretan, garrantzitsua iruditzen zait herri zein norbanako gisa gure puzzlea osatzen joatea; nondik gatozen ez ahanztea, non gauden ongi ulertzeko. Gure arbasoen istorioari, "h" bat gehituaz, historia eraikitzea.

Sarri begiratzen baitiegu gure guraso eta aiton-amonei gutxiago balira bezala (egun ohikoak diren aparailu, teknologia eta jokabideak arrotz zaizkielako), gu jakintsuen paperean jarrita… Baina, ongi pentsatuz gero, ez ote da alderantziz? Oraindik ere bikain moldatzen diren zenbat eta zenbat gauzatan gara gu ezjakinak? Eurengandik ikasteko asko dugulakoan nago: garai zailei (eta goseari) aurre egiteko gaitasuna, gutxirekin bizimodua ateratzen jakitea, gauzak baloratzen jakitea, aldaketetara egokitzeko ahalmena, besterengatik dena emateko borondatea… Egungo krisi testuinguruan, ezin hobeto etorriko litzaizkigukeenak guztiak ere.

Horregatik, gure arbasoak "heroi" anonimo modukoak kontsideratzen ditut. Euren ahaleginari esker gure bizimodua ahalbidetu duten milaka esku ikusezinak. Inoiz dominarik eta errekonozimendurik jaso ez arren, aitortza, esker ona eta gure oroimenean lekutxo bat merezi dutenak. Batez ere, une hauetan, non eurek lortutako eskubide eta ongizate guztia eskuina, dekretu bidez, goizetik gauera, desagerrarazten ari den. Gehiengoa, honen aurrean, noraezean, geldi gauden bitartean…

Batzuk heroi eta eskulturen garaiak ez direla usteko dute. Baina, gurean ez zait inoiz suertatu Lanzarotekoa bezalakorik ikustea. Bai, aitzitik, diktadore edota kolonizatzaileei eskainitakoak topatzea. Turismo eredua bezala, herri bakoitzaren erabakia da zer eta zein omendu.

Niri, pertsonalki, abiapuntu ona iruditzen zait norbere herrian Playa Blancakoa gisako eskulturak planteatzea. Memoriaren gaian (beste) aurrerapauso bat litzateke. Eta turismo eredu lokal bat sustatzeko aitzakia polita.

elan euskadi
ONGD - GGKE

Eskozia: porrotak ezkutatzen duena

Joan den irailaren 18an Eskoziako populazioak ezetz esan zion independentziari.

Erresuma Batuan jarraitu nahi zutenek % 55 atera zuten, independentistek aldiz % 45. Hala ere, begirale gehienak ados daude analisi batean: datu hauetatik ezin da esan garaipena gozoa izan denik Cameron lehen ministroarentzat.

Erreferendum kanpaina hasieran, alderdi unionistak" oso lasai zeuden garaipena ziurtatua zutela pentsatuz baina Alex Salmonen aparteko kanpainari esker konturatu ziren garaipena ez zegoela bermaturik, eta inkesta batzuek independentistei eman zieten garaipena. Memento horietan hain zuzen, alarma gorriak piztu ziren eta hedabideek (BBC barne) eta finantza sektoreek beldur kanpaina sustatzen hasi ziren. Azken orduan Cameron eta alderdi unionistek autonomia gehiago agindu zuten eskoziar gobernurako. Gaur egun, eta erreferenduma pasa ondoren ez dago hain argi Cameronek agindutakoa beteko duen.

Independentisten proiektuaren atzean zegoena ondo ulertzeko Glasgow hirira begiratu behar dugu. Hiri industrial honetan Erresuma Batuko alderdi laboristak hauteskundeak beti irabazten zituen. Haatik, erreferendum honetan Eskoziako hiririk handi eta industrialenean independentistek irabazi zuten, eta analista politiko guztiek baieztatzen dute ezkerrak independentismoaren bandera indarrez hartu duela Westminsterren politika sozial eta ekonomikoari kontrako borroka egiteko.

Eskuinari eta status quo defendatzaileei (sozial liberalismoa barne) nazionalismoa proeiktu atzerakoia dela esatea gustatzen zaie baina ezkutatu nahi dutena zerbait aldatzen ari dela da, zeren gero eta gehiago Eskozian, Katalunian edo Euskal Herrian indartuak diren nazio mugimenduak oreka soziala dute helburu eta horretarako kontziente dira oso bestelako ekonomia ereduak beharrezkoak direla. Beraz, nazionalismo guztiak ez dira berdinak, eta ez gaude OTANek Europa ekialdean bultzatu eta finantziatu zituen nazionalismoen aurrean.

Hurrengo azaroan, Scottish National Partyk kongresua izango du beren buru izango dena hautatzeko eta ziurrenik Nicola Sturgeon izango da hautatua. Bere profil politikoa Salmonena baino ezkertiarragoa da.

Gauzak horrela, unionistek gizarte ekintza programa eta zergen inguruan agindutakoa manteduko ote dute? Ziurrenik askoz errezagoa izango da Ness lakuko monstruoa benetakoa dela adieraziz prentsaurrekoa ematen ikustea.

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

Taberna
Mayflower
Erretegia
katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

-%20
ZERAMIKA
+
SUKALDEA
ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
-680 880 905 -676 532 067
www.eraberri.com

ELKANO ARRAINDEGIA
ARRAINAK, ITSASKIAK
ETA IZOZTUAK
TELEFONOA 943 140 192
KAIA GETARIA 20808

azkuelek
ELEKTRIZITATEA
K21
- DEKORAZIOA
- ILUMINAZIOA
- ERA GUZTIETAKO
INSTALAZIO LANAK
Tailerra/Denda: Araba, 41 (MAXI)
20800 ZARAUTZ
Tel./Fax: 943.13.04.33 - 943.13.33.08
Mobila: 619.52.35.39 azkuelek@euskalnet.net

> AZAROKO AGENDA

> AZAROAREN 2tik aurrera
● ZINE EMANALDIAK hasiko dira igandeetan.
17:00etan, Gure Txerun.
Antolatzailea: Guraso Elkartea.

> AZAROAK 3tik 7ra
● ZUMBA probatu nahi duenarentzat,Sahatsaga kiroldegian, azaroko lehenengo astean, lehenengo klasea doanik izango da.
Izen-ematea eta informazioa:
943 140432
kirolgune@hotmail.com

> AZAROAK 6, osteguna
● HITZALDIA. Katxalin elkarteak antolatuta. Bertan, bularreko minbiziaren zergatiaz, tratamenduaz, prebentzioaz, e.a. hitz egingo da.
18:00etan, Alondegian.

> AZAROAK 9, igandea
● B-SS 50. BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA.
Irteera-ordua: 08:45ean.
Izen-ematea: Sahatsaga kiroldegian, azaroaren 6a baino lehen (tel. 943 140432, kirolgune@hotmail.com)

> AZAROAK 11, asteartea
● SAN MARTIN JAIAK.
Askizu auzoko jaiak.

> AZAROAK 16, igandea
● UROLA-KOSTAK ITSAS ONDAREA EZAGUTZEKO HITZALDI IBILTARIAK
Getariako hitzaldia:
Mendeetan itsasoan nagusi izan den gizarte baten aztarnak.
Hizlaria: Xabier Alberdi.
Lonbide, itsas historian aditua.
Goizeko 11:00etan, udaletxe aurrean.
Ibilbidea: Getariako alde zaharrean zehar.
Izena ematea: Turismo Bulegoa, tel.: 943 14 09 57, turismogetaria@euskalnet.net

> AZAROAK 22, larunbata
● ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIAra bisita gidatua.
Pasai San Juan-aren Eraikuntza.
Izan zaitez XVI. mendeko belaontzi baten eraikuntzaren lekuko.
Irteera-ordua: 10:00etan.
Bisita-ordua: 11:00etan.
Izena-ematea: Turismo Bulegoan.
Prezioa: 5,50 €.

> AZAROAK 26, asteazkena
● AZAROAKO PROIEKZIOA
Elan Euskadi-k antolatuta.
19:00etan, Alondegian.

> AZAROAK 27, osteguna
● KATUKALE irakurle-taldearen saioa.
"GAUZEN PRESENTZIA", Pablo Sastre-rekin.
18:30ean, Saiaz Hotelean.

> AZAROAK 29, larunbata
● "ALKATE TXIKI EGUNA"
Haurren Eguna.
Antolatzailea:
Getariako Guraso Elkartea.
Begiraleak: Urritza Aisialdi taldea eta Gaglo Gaztelekua.

> BALENCIAGA MUSEOA
● ERAKUSKETAK
Cristóbal Balenciaga. Legatu denboragabea. Bilduma III.
Balenciagaren Artea.
Museo del Traje-ko bilduma
2014.04.11-2015.04.05

● JARDUERAK
Museoa familian
Haria jarraitu!
Familientzako bisita-tailerrak
Parte-hartzaileak: 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutilak, helduek lagunduta.

Datak: Urriaren 19a (euskara), azaroaren 23a (gaztelania) eta abenduaren 21a (euskara).
Ordutegia: 11:00-13:00.
Prezioa: 5€ umeek eta 7€ helduek.
Plaza mugatuak. Izena ematea beharrezkoa da.
Informazio gehiago eta izen-emateak:
Tel. 943 00 88 40
@. didaktika@cristobalbalenciaga-museoa.com

● ESKULARRUAK PERTSONALIZATZEA
Helduentzako tailerrak
Datak: Azaroaren 16a eta 30a.
Ordutegia: 10:30-13:30.
Prezioa: 25 €.
Plaza mugatuak. Izena ematea beharrezkoa da.
Informazio gehiago eta izen-emateak:
Tel. 943 00 88 40
@. didaktika@cristobalbalenciaga-museoa.com

> PILOTA
GETARIAKO XII. GAZTE eta HELDUEN ESKUZ BINAKAKO PILOTA TXAPELKETA
Iraupena: urria-urtarrila
Antolatzailea: Gure Txeru.

> GOZO ZAHARTU
55 urte baino gehiago duten emakumeentzako TAILERRA.
Azaroak 11, 18, 25, eta abenduak 2, 9 eta 16.
Ordutegia: 15:00etatik 17:00etara.
Lekua: Alondegia. Izen-ematea: azaroaren 7a baino lehen, udal bulegotan.
Parte hartzea doan izango da.

MENDI - ASTEA

> AZAROAK, 10 eta 11
● GPSaren inguruko IKASTAROA.
Alejandro Egurbidek eskeinita.
Hasierako pausoak ematen erakutsiko da eta horretan lagundu.
19.30etik 21.00etara, Alondegian.
*** Azaroaren 16an eta 22an, ikasitakoa praktikan jarriko dute.

> AZAROAK 12, asteazkena
● BIDEO-PROIEKZIOA eta SOLASALDIA:
"Patagonian Cerro Torre eta Poincenot orratzan igoera"
Parte hartzaileak: Aitor Aranburu (Irun) eta Egoitz Zubizarreta (Arrasate).
19:30ean, Alondegian.

> AZAROAK 13, osteguna
● MENDIAREN BI IKUSPEGI":
Uxoa Irigoien eta Jokin Egurbiderekin.
19:30ean, Alondegian.

> AZAROAK 16, igandea
● BIZKAIKO KOSTAKO 6. ETAPA: GORLIZ - ZUBI ESEKIA.

AZAROA MUSIKAZ BLAI

> AZAROAK 14, ostirala
● EÑAUT ELORRIETAren KONTZERTUA,
"Deserriko kantak".
*** Artzape Euskara Elkarteak antolatu du kontzertu akustiko hau eta Getariako Elkano Abesbatza eta dantzarien kolaborazioa izango du.
22:00etan, Cristobal Balenciaga Museoan.
21:00etatik aurrera bertako taberna zabalik izango da.

Sarrerak: Turismo Bulegoan eta Harritarte dendan.
Erreserbak:
artzape.euskara.elkartea @gmail.com-en edo telefonoz 660 120 602 edo 645 709 822.

> AZAROAK 22, larunbata
● MUSIKA BANDAren KALEJIRA, 12:30ean.

> AZAROAK 23, igandea
● "GAZTE ALAIAK" TXISTULARI TALDEAREN KONTZERTUA,
20:00etan, elizan.

> AZAROAK 23, igandea
● GETARIAKO ABESBATZAren KONTZERTUA, 12:30ean, Salbatore Deunaren parrokian.
Zuzendaria: Jazinto Isasti.

> AZAROAK 24, astelehena
● KALEJIRA, txistulari, triki-tilari, panderojole eta musika eskolako ikasle guztiekin,
17:30ean.
Jarraian, Berdura plazan, EMANALDIA eta TXOKOLATADA.

> AZAROAK 30, igandea
● DIANA Getariako Musika Bandarekin, 09:30ean.
GETARIAKO MUSIKA BANDA eta eta SUGARRI FANFARREaren KONTZERTUA, 12:30ean, Salbatore Deunaren parrokian.
Zuzendaria: Aitor Uria.

● DANTZA EMANALDIA, 19:00etan, Herri eskolako aretoan. Haatik dantza konpainiaren eskutik, "ERRIMAK OINETAN".
Dantza berriak, bertsoei jarriak. Zuzendariak:
Aiert Beobide eta Unai Elizasu.

herriko gutxiak

Ander Subijana
Harralde taberna

Pizza (4 lagunentzako)

Osagaiak:

Masarako:
250 gr irina
gatza eskukada bat
oliba olioa
ura (sagardo edalontzi baten laurdena)
legamia 20 gr

Pizzaren basean:
Tomate saltsa
Mozzarela gazta
Barazkiak xehetuta:
Piper berdea
Piper gorria
Kalabazina

***Kantitateak osagarrien tamainaren arabera, base guztia estali arte.*

Egiteko era:

Masa egiteko:
Osagarri guztiak nahastu, reposatzen utzi ordubetez eta trapu batekin tapatu. Rodillo batekin eta irin pixka batekin zabaldu masa eta gustuko osagarriak jarri 4 zatitan. Labean sartu 10 minutuz, 250 gradotan.

Irudiko pizzak 4 zati ditu:

1. Ahuntza gazta
2. Bularkia eta roquefort gazta
3. Patata eta tipula potxatua
4. Atuna eta olibak

Baina osagarri guzti hauen artean pizza gustura egiten dute:



Txanpiek, ahuntz gaztak, bularkiak, roquefort gaztak, arroz odoliak, tipula potxatuak, hirugiarrak, hegaluzeak, olibak, urdaiazpikoak eta ananak.

On egin eta gozatu eta goxatu!

Oharra: iraileko Politena jatetxeko errezetan (Olagarroa plantxan), akatsa zegoen. Patata pureari ez zaio gainetik piperbeltza botatzen, piperrautsa gorria baizik. Barkatu eragozpenak.

zorion agurrak



Aritz Iribar
Urriak 14

Zorionak artista, lan talde guztiaren partetik.

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testuatxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta artzape@topagunea.com-era bidali. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4€ ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

Telefono interesgarriak

Udal bulegoa	943 896 024
Faxa	943 140 190
e-mail: *udala@getaria.org*	
Kiroldegia	943 140 432
Kirol-portua	943 580 959
Taxiak	
Javier	607 720 242
Carlos	607 403 498
Udaltzaingoa	943 896 146
Liburutegia	943 896 147
Anbulatorioa	943 140 653
Botika	943 140 441
Herri Eskola	943 140 729
SOSdeiak	117
Kofradia	943 140 200

FULDAIN FARMAZIA-ren zaintza egunak: azaroak 10etik 16ra (biak barne)

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Getaria AUTOESKOLA
Herrerieta 23 Behea
Tel: 943 140 301
ORDUTEGI MALGUAK - EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

EÑAUT ELORRIETAREN "DESERRIKO KANTAK"

DISKAREN AURKEZPENA AKUSTIKOAN

AZAROAK 14, OSTIRALA **CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOAN**



ANTOLATZAILEA:

ARTZAPE EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK:

GETARIAKO UDALA
eta

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA